GALAXIA
Etorkizuna argitzen

LANBIDE-ORIENTAZIOAREN INGURUAN AUTODIAGNOSTIKOA EGITEKO TRESNAK

B(t)
Bizkaia with the talent



B(t)
Bizkaia with the talent

Erakunde parte-hartzaileak:

innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzia Agencia Vasca de la Innovación | Deusto Universidad de Deusto Deustuko Unibertsitatea | Mondragon Unibertsitatea Goi Eskola Politeknikoa Escuela Politécnica | ikasLAN Bizkaia | HETEL | Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco Hezkuntza Saila Departamento de Educación

Lanbide-orientazioar en inguruan autodiagnostikoa egiteko tresnak



Sarrera:

“GALAXIA etorkizuna argitzen” proiektuaren testuinguruan, lanbide-orientaziorako tresnak aztertu dira. Tresna horien helburu nagusia da ikasleen interesak eta haien nortasunaren ezaugarriak identifikatzea, interes horiekin lotutako lanbideetara bideratutako goi-mailako ikasketen inguruan orientatzeko.

Ikasleen bokaziozko aukera eta irakasleen orientazio-lana erraztuko duten tresnak eskaini nahi izan direnez, lehendik zeuden eta hezkuntzan asko erabiltzen diren autodiagnostikoko 3 tresnaren gomendio pedagogiko bat landu da.

Hiru tresna hauek identifikatu dira ikasgelako lanbide-orientazioan laguntzeko egokitzat eta osotzat:

Etorlan
Ibilbide handia
MyWayPass

ETORLAN:

Etorlanerako sarbidea



EGILEA: ADEGI - Gipuzkoako Enpresen Elkartea
AZTERGAIA: Nortasuna eta interes profesionalak
HIZKUNTZAK: Gaztelania eta euskara
AURREIKUSITAKO DENBORA: 40-45 minutu

Azalpen laburra:

Doako tresna bete-betea da, eta pertsonei lagundu nahi die beren gaitasunei, trebetasunei, lehentasun pertsonalei, interesei eta balio okupazionalei buruz gogoeta egiten. Gainera, autodiagnostikoko tresnak eskaintzeaz gainera, profesional batzuen testigantza inspiratzaileak ere jaso dira, bai eta ikasketak hautatzeko garaian orientatzeko laguntza- eta gogoeta-prozesu bat ere. Ikasleentzako informazio baliagarria ere agertzen da, besteak beste, alderdi hauei buruzkoa: ikasketa bakoitzaren enplegagarritasuna eta egonkortasuna, EAEn erreferentzia diren ikastetxeak, sartu ahal izateko gutxieneko notak, irtenbide profesionalak, lan-kondizioak, etab.

Ikasgelan orientatzeko gomendioak:

ETORLAN tresnak dituen baliabide guztien artetik, orientatzaileari gomendatzen zaio 3 baliabide jakin hauek erabiltzea ikasgelan:

- **ZURE PROFILA AZTERTU**
  Ikasketak hautatzeko erabakiak hartzen laguntzen die ikasleei. Lau fase ditu: Zer nahi dut?, Non nago?, Zer egin dezaket?, Zer egingo dut? “GALAXIA Etorkizuna argitzen” ataleko "Nire nabigazio-egunkaria" jardueran planteatzen den ibilbidearen antzekoa du.

  Ez bada “Nire nabigazio-egunkaria” jarduera egin, ariketa hori, senideen laguntzarekin, etxean egiteko gomenda diezaieke orientatzaileak ikasleei.

ETORLAN:

Ikasgelan orientatzeko gomendioak:

Baliabide honetan, bi tresna oso gomendagarriak dira ikasgelan ikasleekin lantzeko:

- **Autoezagutzaren testerako sarbidea:**
  Nortasunari buruzko 35 item, 15-20 minututan egitekoa. Ikasleek adierazi behar dute beren ustez pertsona-mota jakin batekoak diren ala ez, bai edo ez erantzunez. Zeregin batzuk beste batzuk baino hobeto egiteko gaitasunean eragiten duten zortzi ezaugarriren konbinazioan oinarritzen da testa (elkarren aurkakoak dira ezaugarriok). Zortzi ezaugarri horien konbinazioak nortasunaren hamasei alderdi-mota ematen ditu.

  Gomendagarria da orientatzaileak ikasleei gogoraraztea test honek joerak erakusten dituela eta haren helburua ez dela pertsonak etiketatzea. Halaber, intereseko eremuak identifikatzen eta beren ezaugarri pertsonal nabarmenenak ezagutzen lagunduko die testak.

- **Bokazio-orientazioko testerako sarbidea (Hollanden testean oinarritua).**
  60 item. Ikasleen bokaziozko lehentasunak eta interesak neurtzeko balio du, eta 30-40 minututan egin daiteke.
  Testaren emaitza gisa, ikaslearen nortasun gailena eta haren ezaugarri nagusiak definitzen dituen txosten pertsonalizatu bat eskuratzen da. Horrez gainera, ikaslearen nortasun-mota ezagutza-eremu jakin batzuekin lotzen du, eta nortasun gaileneko profil horri dagozkion arlo batzuk esploratzea gomendatzen du.

  Komenigarria da orientatzaileak testa ikasgelan egitera eta testaren emaitza ulertzera animatzea ikasle guztiak. Ikasleak Hollanden testeko nortasunetako bakoitzarekiko duen bateragarritasun-ehunekoa erakusten du txostenak. Ikasleei azaldu behar zaie, halaber, testean lortutako informazioaren helburua dela haien gaitasun eta ahalmen gailenenak nabarmentzea, intereseko arloak identifikatzen laguntzeko. Horregatik, testa egin ondoren, gomendagarria izango litzateke txostenean markatu zaizkien intereseko arlo okupazionalak (planetak) aztertzen zentratzea.

ETORLAN:

Ikasgelan orientatzeko gomendioak:

- **ARLOEN ARABERAKO BILATZAILEA**
  Baliabide oso erabilgarria da ikasleentzat, dagoeneko nahiko garbi dutenean zer lanbide-arlotan zentratu nahi duten. Tresna honetan, ikasleek titulazio-arlo bat hautatu dezakete, eta alderdi hauen arabera iragazi: lanbide-heziketa edo unibertsitate-ikasketak, zentro publikoa edo pribatua, gutxieneko nota, enplegagarritasun-maila eta EAEko lurraldeak.

  Ikasleek nahi dituzten bilaketa-irizpideen arabera iragazi ondoren, EAEn egiten diren ikasketa guztien zerrenda bat agertzen da. Aukera dute haietako bakoitza xehetasun gehiagorekin ikusteko eta bestelako datu batzuk ezagutzeko: titulazio horrekin zer lan egiten den, arlo horretako profesionalen testigantzak, lotura duten gaitasunak eta interesak, irteera profesionalak, lan-baldintzak, ikasketen batez besteko iraupena, graduazio-tasa, ikasketekiko gogobetetze-maila eta EAEko zentroetan eskaintzen den plaza-kopurua.

Orientatzaileari gomendatzen zaio ikasleak bere intereseko arloei lotutako lanbide-heziketako eta unibertsitateko ikasketak tresna horretan bilatzera anima ditzan. Hala, ikasleek argiago izan dezakete zer bide hartu gehien interesatzen zaien edo beren lehentasunetara ondoen egokitzen den horretan lan egiteko.



ETORLAN:

Ikasgelan orientatzeko gomendioak:

- **ESPERIENTZIAK**
  Hainbat okupazio-arlotako 50 profesional baino gehiagoren testigantzak jasotzen dira. Euskarazko eta gaztelaniazko bideo laburrak dira, eta haien helburua da ikasleak orientatzea profesional batzuen benetako lanaren inguruan.

  Testigantzak aztertzeko proposa diezaieke orientatzaileak ikasleei, haietakoren bat ikasleen intereseko arloekin bat datorren ikusteko. Profesional horiek diharduten enpresen inguruan ikertzera ere anima ditzake ikasleak, hobeto ezagutzeko haietan zer lan egiten den. Testigantzak STEM lanbide-arloekin (planetak) lotzeko ere proposa dakieke.

Familia-ingurunerako gomendioak:



ETORLAN tresna erabiltzera gonbidatzea familiak, ARLOEN ARABERAKO BILATZAILEA aztertzeko, batez ere. Izan ere, tresna baliagarria izan daiteke senideentzat eta ikasleentzat, beren interes profesionalak asebetetzeko EAEn dituzten aukeren berri izateko eta ikasketa bakoitzaren irteerak hobeto ezagutzeko.

IBILBIDE HANDIA:

Ibilbide handirako sarbidea



EGILEA: EDUCAWEB

AZTERGAIA: Nortasuna eta interes profesionalak

HIZKUNTZAK: Gaztelania eta katalana

AURREIKUSITAKO DENBORA: 30-40 minutu

Azalpen laburra:

Doako galdetegia, etorkizuneko ikasketak edo lanbidea aukeratzeko garaian garrantzia duten ezaugarri pertsonal batzuen inguruko lehentasunak identifikatzeko balio duena. 16 urtetik gorako ikasleentzat nahiz ikasle ez direnentzat da. Interesei buruzko inbentario mailakatu batek osatzen du galdetegia, eta 5 atal ditu: zer duzu gustuko?, zer gustatzen zaizu egitea?, zer dakizu egiten ?, zer balioesten duzu lanean? eta nolakoa zara? Testaren emaitza gisa, unibertsitate-ikasketak, lanbide-heziketakoak eta, kasu batzuetan, arautu gabeko ikasketak jasotzen dituen okupazio-talde bat esleitzen da.

Ikasgelan orientatzeko gomendioak:

Bost faseko egitura mailakatua duenez, galdetegia arin eta erraz betetzen dute ikasleek. Hona zein den testaren egitura:

- **Zer duzu gustuko?:** lanbide-jarduerak 14 taldetan sailkatuta agertzen dira, eta 2 hautatu behar dira.
- **Zer gustatzen zaizu egitea?:** gai edo eduki akademikoen 16 talde aurkezten dira, eta 4 hautatu behar dira, lehentasunaren arabera.
- **Zer dakizun egiten?:** 16 gaitasun eta trebetasun daude zerrendan, eta erabiltzaileak 4 hautatu behar ditu, bere buruari egozten dizkionak.
- **Zer balioesten duzu lanean?:** 12 balio okupazional daude zerrendan, eta erabiltzaileak lau aukeratu behar ditu, etorkizunean bere lanbide-jardueran gehien egin nahi lituzkeenak.

IBILBIDE HANDIA:

Ikasgelan orientatzeko gomendioak:

- **Nolakoa zara?:** 47 lanbide daude zerrendan, eta asebetetze-maila adierazi behar da, 0tik 3ra (Asko gustatzen zait (3) / Dezente gustatzen zait (2) / Gutxi gustatzen zait (1) / Ez zait gustatzen (0)). Atal edo fase honetan bertan, gaitasun eta trebetasunen azken zerrenda bat dago, eta erabiltzaileak adierazi behar du zer mailatan duen haietako bakoitza (Erabat ados nago (3) / Nahiko ados nago (2) / Ez nago ados (1) / Ez nago inondik inora ere ados (0)).

Testaren emaitzetarako sarbidea izateko, ikasleak erregistratu egin beharko du. Hala, edozein unetan berreskura dezake bere emaitza-txosteneko informazioa; testa behin baino gehiagotan ere egin ahal izango du, eta emaitza desberdinak erregistratu.

Komenigarria da oso orientatzaileak ikasgelan bertan egitea testa ikasleekin batera eta prozesuan laguntzea, helburua eta ataletako bakoitzaren arauak ulertzen laguntzeko.

Komeni da, halaber, orientatzaileak txostenaren bertsio hedatua aztertzera animatzea ikasleak, txostenetik ateratako emaitzak ulertzeko garaian. Bertsio laburtuak talde okupazional nagusi bakar bat erakusten du, eta bertsio aurreratuak, aldiz, hiru edo lau talde okupazional eta afinitate-ehunekoa ematen ditu. Gainera, txostenaren bertsio hedatuan, ikasleek talde okupazional bakoitzari lotutako eskola-gaiak, gaitasunak eta trebetasunak eta balio profesionalak identifika ditzakete. Datu horiek guztiak lagungarriak dira titulazioei buruzko informazio oso eta doiagoa eskaintzeko ikasleei.

Familia-ingurunerako gomendioak:



Familiak animatzea ikaslearekin batera txosten hedatuaren emaitzak aztertzera, ikasleari esleitutako talde okupazionalak baloratzeko, kontuan hartuta lotutako balio profesionalak eta, bereziki, lanbide-heziketan eta unibertsitate-heziketan dauden aukerak.

MYWAYPASS:

MyWayPass-erako sarbidea



EGILEA: Bertelsmann Fundazioa eta Singularity Experts

AZTERGAIA: Lanbide-interesak eta gaitasunak

HIZKUNTZAK: Gaztelania eta ingelesa

AURREIKUSITAKO DENBORA: 10-20 minutu

Azalpen laburra:

Ikasleari bere etorkizun profesionalari buruz erabakiak hartzeko prozesuan laguntzeko tresna bat da. “GALAXIA etorkizuna argitzen” proiektuaren ingurunearen oso antzekoa du. Bost planetako galaxia bat da (amets egin, aztertu, eraldatu, partekatu eta ezagutu zure burua) eta erdian, Eguzkia balitz bezala, “inspira zaitez” dago. Planeta bakoitzean zenbait jarduera daude. Jardueren helburua da ikasleek beren burua hobeto ezagutzea, besteen ustez ikaslearen trebetasunak, indarguneak eta intereseko arloak zein diren aztertzea, etab. Gainera, lanbideei buruzko bideoak eta profesional batzuen testigantzak ikusteko aukera ematen du.

Ikasgelan orientatzeko gomendioak:

Hollanden tipologia bokazionalen sailkapenean oinarritzen da lanbideen eta intereseko arloen azterketa eta, haiek aintzat hartuta, beste 10 lanbide erakusten dira. Guztira 60 lanbide aurkezten dira, eduki teknologiko handikoak eta enplegagarritasun-maila handikoak.

MYWAYPASS tresnak dituen baliabide guztien artetik, orientatzaileari gomendatzen zaio Singularity Experts doako galdeketa erabiltzea ikasleekin; "INSPIRA ZAITEZ" planetatik joaten da galdetegi horretara: Bereziki STEM arlora bideratutako 30 itemeko galdetegia da, eta ikasleak hiru erantzunen artean aukeratu behar du: bai, zalantzak ditut, ez.

MYWAYPASS:

Ikasgelan orientatzeko gomendioak:

Singularity Experts-en galdetegirako sarbidea

Galderen adibideak:

- Interesatuko litzaidake…
- Droneak pilotatzea
- Gaixoak zaintzea ospitale batean
- Zientziari buruzko bideoak ikustea Interneten
- Enpresa bat sortzea
- Enpresa bateko kontabilitateaz arduratzea
- Robot bat sortzea
- Negozio-plan arrakastatsu bat sortzea

Emandako erantzunak kontuan hartuta, sistemak profil nagusi 1 edo 2 esleitzen ditu.

❏ 1. adibidea: Sortzailea eta soziala. Esleipen horretan oinarritua, gomendio bat egiten da: “Horregatik, sormenarena eta gainerakoei laguntzea eta haiek artatzea eskatzen duten lanak eta ikasketak hautatu beharko zenituzke.”

Gainera, ikaslearen interesak konbinatuta, arrakastazko enplegu bat proposatzen du: “aktualitate-analista”; fitxa batean enplegu hori deskribatzen du, eta gaur egungo eskaerari eta eraldaketa digitalean duen inpaktuari buruzko datuak ematen ditu.

❏ 2. adibidea: Ikertzaile eta teknikaria. Esleipen horretan oinarritua, gomendio bat egiten da: “Horregatik, fenomeno fisikoak edo intelektualak aztertzea eta eskuzko eginkizunak eta eginkizun teknikoak eta mekanikoak egitea berekin dakartzaten lanak eta ikasketak hautatu beharko zenituzke.”

Gainera, ikaslearen interesak konbinatuta, arrakastazko enplegu bat proposatzen du: “Zibersegurtasun-softwarearen ingeniaria”; fitxa batean enplegu hori deskribatzen du, eta datozen urteetan mundu mailan izango duen lan-eskaerari buruzko datuak ematen ditu.

Gomendagarria da erabat orientatzaileak ikasleak bultzatzea proposatutako lanbideen fitxak irakurtzera. Izan ere, gaurkotasun handiko enpleguak dira, zientziarekin eta teknologiarekin lotura handia dute eta, gainera, datozen urteetan lan-eskaera handia izango dute.

MYWAYPASS:

Ikasgelan orientatzeko gomendioak:

Halaber, ikasleei jakinarazi behar zaie interesatzen zaienarekiko hurbilketa bat baino ez dela, 30 galderatan oinarritua, eta litekeena dela, erantzun bat apur bat aldatuta, emaitzak aldatzea. Garrantzitsuena da haien interesen joerari (ikerketa, teknika, sormena…) erreparatzea eta interes horiei lotutako lanbideetan sakontzea pixkanaka.

Testa egiteaz gainera, irakasleak anima ditzake ikasleak Hollanden 6 kategoriak eta haien barruan dauden lanbideak ezagutzera. Gaurkotasun handiko lanbideak dira, eta, lanpostu bakoitzaren fitxan, zenbait datu jasotzen dira: lanpostuaren deskribapena, sektore sozioekonomikoan duten eragina eta lanbide hori lortzeko prestakuntza-ibilbide baten proposamena.

Azkenik, ikaslearen orientazio-prozesuan asko lagundu dezaketen autoezagutzako jarduera batzuk ditu tresnak.

- **“EZAGUTU ZURE BURUA”** planetan dauden jardueren bidez, beren ezaugarriak eta indarguneak azter ditzakete eta beren erreferenteei buruz hausnartu.

- **“AMETS EGIN”** planetan, “Ispilu bikoitza” jarduera gomendatzen da: ikasleek gaur egun dituzten gaitasunak eta interesak eta etorkizunean ongi etorriko zaizkiela iruditzen zaien lanbide-arloak identifikatzen dituzte.

- **“AZTERTU”** planetan, lan-merkatua aztertzeko baliabide batzuk jasotzen dira: eskaera handieneko lanbideak, profil- eta lanpostu-motak, lanbide bakoitzera jotzeko ikasketak...; gogoetarako jarduera batzuk ere badaude.

- **“PARTEKATU”** planetan, “Nire gaitasunen pasaportea” jarduera nabarmentzen da. Sei gaitasunetan zeharreko ibilbidea da: Digitala, Hizkuntza-komunikazioa, Ikasten ikastea, Izaera ekintzailea, Zientzia eta teknologia, Gizarte- eta gizalege-zientziak, Kultura-adierazpena. Galdetegi labur bat dago gaitasun bakoitzeko eta 6 azpigaitasun jasotzen dira amaiera gisa; emaitzak kontuan hartuta, gaitasunen pasaporte bat sortzen da ikaslearentzat.

MYWAYPASS:

Ikasgelan orientatzeko gomendioak:

- **“ERALDATU”** planetan, erabakiak hartzeko prozesuan egin beharreko hurrengo urratsak planifikatzen laguntzen zaio ikasleari. Interesgarria da “Nire bide-orria”: txantiloi bat da, eta ikasleak hautatu behar duen hezkuntza-ibilbideari, hautatutako lanbiderako interesgarria izan daitekeen prestakuntza osagarriari (hizkuntzak, masterrak, gaitasun digitalak, etab.) eta beste alderdi batzuei buruz gogoeta egin dezan balio du.

Familia-inguruneko gomendioak:



Interesgarria izan daiteke familiei gomendatzea tresnak dituen elementuak aztertzea eta ikasleari laguntzea bere gaitasunei eta interesei buruzko gogoeta egiten eta agertzen diren lanbideak aztertzen. Gainera, lanbide bakoitza lortzeko egin beharreko ibilbide akademikoei buruzko informazio interesgarria jasotzen da.

GALAXIA
Etorkizuna argitzen

LANBIDE-ORIENTAZIOAREN INGURUAN AUTODIAGNOSTIKOA EGITEKO TRESNAK

B(t)
Bizkaia with the talent



B(t)
Bizkaia with the talent

Erakunde parte-hartzaileak:

innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzia Agencia Vasca de la Innovación | Deusto Universidad de Deusto Deustuko Unibertsitatea | Mondragon Unibertsitatea Goi Eskola Politeknikoa Escuela Politécnica | ikasLAN Bizkaia | HETEL | Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco Hezkuntza Saila Departamento de Educación